

## EUSKAL IZAERA



*Biyotz on baten gandik;  
entzun bezazkite  
gaur esan nairik dauzkan  
zenbait borondate.*

Euskal oitura eta  
usariyo lenak  
mundua dan ezker  
jarriyak daudenak  
zeñak kentzen zituzten  
naigabe ta penak  
nai ditugu len ziran  
bezelašen denak.  
Gorde zaizkigun lege  
guraso zarrenak  
errespeto aundiko  
jakintsu ayenak  
ta legearekin bat  
len lengo omenak,  
munduan ezagutzen  
diraden onenak,  
ain gošo maitaturik  
berak zituztenak.  
Ayek ziran poz gayak  
euskal semienak,  
ayek bai ekartzalle  
argi zuzenenak,  
lur maite fedetsu ta  
laguntzallienak,  
aberats, aundi, chiki  
ta beartsubenak.

Ayek alaitzen zuten  
guziyen barrenak  
banaturik gu gana  
beti zori onak.  
Oraindik gure lurrak  
Badauzka zain oñak;  
tentetu bear dira  
etzanda egonak;  
zutitu bear dira  
okertzen zeudenak  
zuzentzen ta edertzen  
saya gaiten denak.  
Guk ere borondate  
emen dauzkagunak,  
dira jatorrak eta  
biziro legunak;  
onez aurrera ere  
datozen egunak  
baturikan igaro  
zaizkigun, lagunak,  
denak gera Aitorren  
seme ezagunak  
euskal lurren odola  
bulartzen degunak,  
¡aurrera ere orla  
gizon jakintzunak,  
eta ala berian  
guchi dakigunak!  
estutu gaitzan euskaldun katetasunak:  
¡Bizi bitez bai bizi  
beti euskaldunak;  
eta oitura onak  
lendik ditugunak!

JOSÉ ARTOLA.

